BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4700

EBAZPENA, 2014ko urriaren 10ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena; honen bitartez, Berdintasunaren aldeko 2014ko Emakunde Sarirako epaimahaiaren osaera jendaurrean jartzen da.

Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortzen eta arautzen duen irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren 1.2. artikuluari jarraikiz, urteroko deialdia Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak emandako ebazpen baten bitartez egin behar da. Beraz, 2014ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez, Berdintasunaren aldeko 2014ko Emakunde Sariaren deialdia egin da (uztailaren 1eko EHAA, 123. zk.). Sari horren helburua emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko lanean nabarmendu diren pertsona fisikoen edo juridikoen (publikoak nahiz pribatuak) jarduera azpimarratzea eta aitortzea da. Izan ere, pertsona horiek, hainbat ekintza, lan edo proiektu bultzatuta, emakumezkoen lana eta horien ahalduntzea aitortzeko alderdi garrantzitsuak hobetu dituzte, edo euren ibilbidearen bitartez emakumeen garrantzia balioesteko eta duintzeko lanean nabarmen laguntzen dute, edo Euskal Herrian sexuen arteko aukera- eta eskubide-berdintasuna sustatzeko lanean nabarmendu dira.

Dekretu horretako 3. artikuluaren arabera, epaimahai bat osatuko da saria nori eman proposatzeko, eta erabaki hori jendaurrean jarriko da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpenaren bidez. Ebazpen hori, hain zuzen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Saria emateko Ebazpena argitaratu baino hilabete lehenago, gutxienez.

Horren ondorioz, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20.5. artikuluan xedatutakoa betetzeko ezintasuna justifikatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Berdintasunaren aldeko 2014ko Emakunde Sariaren epaimahaia nork osatuko duen jendaurrean jartzea:

Mahaiburua:

Izaskun Landaida Larizgoitia andrea.

Idazkaria:

Ana Alberdi Zubia andrea.

Epaimahaikideak:

Marta Alaña Alonso andrea.

Pilar Ardanza Uribarren andrea.

Larraitz Ugarte Zubizarreta andrea.

Ibon Uribe Elorrieta jauna.

Raquel Raposo Acevedo andrea.

Maite Asensio Lozano andrea.

Xabier Arakistain Ecenarro jauna.

Mikel Otxotorena Fernandez jauna.

Manoli Cubero Lejarza andrea.

Ordezko epaimahaikideak:

Jagoba Gomez Alonso jauna.

Xabier Legarreta Gabilondo jauna.

Laura Gomez Hernandez andrea.

M.ª Jose Biurrun Olano andrea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko auzietako epaitegi egokian, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 10a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.